


OIARTZUNGO ERRALDOI TXIKIEN HISTORIAK

2018KO AZAROA ETA 2019KO OTSAILA BITARTEAN SORTUAK.



SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa

IZENA: **BLEND**

HISTORIA:

Blenda jatorri Afrikarreko familia batekoa da. Klean erdaraz hitz egiten diote sarritan, larruazaleko koloreagatik edo, baina Blendak euskaraz erantzuten die, Oiartzuar Afrikarra dela esanez harro-harro. Gainera, euskaraz gain, etxeok Nigerialako Jalaa hizkuntza ere irakatsi diote, familiako hizkuntza gal ez dezan.

Urteak daramatzate Oiartzunen, ez dute Afrika ahazten, ordea. Gurasok egunero hitz egiten diote Afrikan utzitako herriaz, familiaz, lagunez, janariez, usainez eta koloreez.

Blenda zoriontsua da Oiartzunen. Maitasunaren bihotzik gorriena darama soinean, alaitasunaren kolorerik bizienak buruan, eta munduko irribarrerik distiratsuena ahoan, eta ez hortzetako aparatua ikusten zaiolako soilik.



EZAUGARRI AIPAGARRIAK

- LGTBko zapia, ortzadarraren kolorea izateaz gain LGTBko koloreak ere badirelako (Lesbiana, gay, transexual eta bisexulen koloreak)
- Hortzetako aparatua darama.

IZENA: **ARRAXKU**

HISTORIA:

Garai batean Arraxku ez zen gaur egungo erraldoi alaia. Beste askok ez bezala, Arraxkuk bere gorputzeko ileak maite zituen, eta haiekin bizi nahi zuen, horregatik gaizki sentitu gabe.

Baina bere ileen kontrako esamesak etengabeak izanik, ileak kendu eta ezkutatu zituen azkenean. Besteek nahi zutena bihurtu zen Arraxku, eta horrek, nola ez, triste sentiarazten zion.

Behin lagun batek, betaurreko moreak oparitu zizkion, eta jantzi orduko ohartu zen besteek aldatu behar zutela euren begirada, ez Arraxkuk bere gorputza.

Arraxku berriz Arraxku denetik, bere buruaren jabe sentitzen da, libre eta boteretsu. Txapela morea jantzen du, itzal morearen babesean sentitzeko, eta lotsarik gabe erakusten ditu hain maite dituen ileak, munduko pertsona guztion gorputzak apaintzen dituzten ileak.



EZAUGARRI AIPAGARRIAK

- Bekain eta besape iledunak ditu.
- Betaurreko moreak daramatza. Betaurreko moreek mugimendu feministari keinua egiten diote.
- Txapela morea darama buruan. Hau ahalduntzearen adierazgarri da.

IZENA: **ARKOTX**

HISTORIA:

Arkotxi haurra zela jendeak iseka egiten zion, gehiengoaren gustuekin bat egiten ez zuelako. Estereotipoetatik ihes egiten zuen beste janzkera bat, beste musika estilo bat, edo beste jolas bat aukeratzen zuelako. Arraroa zela esaten zioten denek, eta une batean sinetsi ere egin zuen.

Baina urteen poderioz ikasi du arraroa ezetz, berezia dela. Egun nortasun eta indar handiko pertsona da. Bere nahien arabera jantzen eta ibiltzen da, bibote iletsu eta betile apainduekin. Berak nahi duena izatea lortu du.

Herritarrek jada ez dute buelta ematen albotik pasatzen denean. Baina oraindik ere noizbehinka bakarren batek galdetzen dio neska ala mutila den. Arkotxek Arkotx dela erantzuten die, eta begi-keinua eginda, dantzan urruntzen da bere adats luzea airean.



EZAUGARRI AIPAGARRIAK

- Ile luze luzea
- Bibotea
- Belarritako bat
- Betile luze eta apainduak

IZENA: KIÑU

HISTORIA

Kiñuri minbizia diagnostikatu zioten duela gutxi. Tratamenduaren ondorioz ilea galdu zuen, eta orain, ilearen orde zapi arrosa darama buruan.

Ospitaleko egonaldi luzeak gogorrak egiten zaizkion arren, lagun berriak egin ditu bertan, eta herriko adiskideek ere maiz egiten diote bisita. Elkartzen direnean ikertzaile izatera jolasten dira eta urrutiko lurraldeetara bidaiatzen dute.

Kiñuk Naizeneko lagunek emandako kamiseta dotorea jantzi, Mirentxin lehengusuak oparitutako motxila txapaduna gainean hartu eta edonora joan daitekeela sinisten du, bera bezalako haurrei eta euren familiei laguntzeaz arduratzen diren elkarteen indarra sentitzen baitu barruan.



EZAUGARRI AIPAGARRIAK

- Buruan daraman zapia Aspanogi elkartekoa da, Gipuzkoako haur minbizidunen elkartekoa.
- Soinean duen kamiseta Naizen elkartekoa da, adin txikiko haur transexualen gurasoen elkartekoa.
- Motxiladun umeen motxila urdina darama bizkarrean.
- Motxilan, hainbat elkarteren txapak daramatza:
 - Mindara elkarteko txapa, dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko elkartekoa.
 - Bihotzez elkarteko txapa, kardiopatiak dituzten haurren elkartekoa.
 - Juneren hegoak elkarteko txapa, arazoak dituzten haurrei eta hauen familiei laguntza eskaintzeko elkartekoa.